



Deialdiko oinarri arauak

Lehena.- Deialdiaren Xedea.

Deialdi honen helburua da arkitektoen lan-poltsa sortzea, A1 sailkapen taldekoa.

Bigarrena.- Lanpostuaren funtzioak.

- Aretxabaletako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egitea, idaztea, izapidetzea eta behin-betiko onarpena lortzeko beharrezko jarduketa administratiboan jarraipena egitea. Betiere, indarrean dauden arauak egokituak, (urbanistikoak, ingurumenekoak etab.):

- Lanak Udaltzaren erabakiak betez eta Udaltz Zerbitzu Teknikoekin harremanetan egin beharko dira hartu-eman jarraia eta koordinazioa izanik Hirigintza Sailaren arduradunarekin eta Plangintza Batzordearen arduradunarekin.

- Administrazio ezberdinen eta bestelako erakunde eta enpresen koordinazioa (Itzulpenak, aholkularitza juridikoa, ingurumen arloarekin lotutako hainbat dokumentu eta aholkularitza, parte-hartze prozesua, eguneraketa topografikoa, programa informatiko berezietarako moldaketak_GIS, BIM_....).

- Antolatzen diren parte hartze prozesuetan era aktiboan inplikatzeko eta koordinatzeko. Herritarrekin egingo diren batzarretan azalpen teknikoak ematea.

- Garatzea programak, proiektuak eta ekintza-planak bere arlo profesionalari dagozkionak, hala eskatuta, nola bere ekimen propioz.

- Udalerri gaindiko eta udalerritarren koordinazioa moldatuta, hala behar bada, programatuko diren ekitaldi edota lan-bileretara egokitzeko.

- Udalerri eta inplikaturako beste administrazioetan egindako bileretara bertaratzea, baita beharrezkoa ikusten den erakusketa publikoetara ere.

- Ingurumen kontrolean eskumena duten beste administrazioekin kontaktuan egotea.

- Gaiarekin lotutako aholkularitza teknikoa Udaltzari.

- Planaren fase ezberdinetako dokumentuak, baita hedatze eta erakusketa dokumentuak edota idatzizko jakinarazpenak etab. euskaraz eta gazteleraz idatzi beharko dira, (hurrenkera horretan). Egindako itzulpenak zehatz-mehatz jatorrizko testuarekin bat datoze konprobatzea. Testu guztietan bermatu beharko da hizkuntzen tratamendu egokia, ez sexista, arlo horretako araudia jarraituz.

- Genero ikuspegia kontuan hartzea, baita eragin linguistikoaren ebaluazioa ere.

- Ingurumen aholkularitzaren koordinazioa. Txosten horietan jasotakoa aztertu eta HAPOan barneratzea.

- Hirigintza jasangarriaren ikuspegia bermatzea.

- HAPOaren izapidetzea 2/2006 Legeak 90 eta 91. artikulua jarraituz egingo da.

- Egin beharreko lana fase ezberdinetan garatuko da eta dokumentu horiek guztiak Udaltzari aurkeztutako beharko dizkio:

- 1) Hirigintzarekin lotutako informazioa eta herriaren gaur egungo egoeraren diagnostikoa.
- 2) Aurrerakina egitea.
- 3) Erakusketa publikoa, aurrerakinari jarritako alegazioei arrazoi bidez erantzutea eta parte-hartze prozesua aztertzea.
- 4) HAPO egitea. Aldez aurretik, Plana idazteko erabiliko diren irizpide eta helburuak zehaztuko dira.
 - Memoria informatiboa eta justifikatiboa.
 - Informazio-planoak.
 - Egiturazko antolamenduaren planoak
 - Antolamendu xehatuaren planoak.
 - Hirigintza arauak
 - Bideragarritasun Ekonomiko-Finantzararioaren Azterlana
 - Iraunkortasun Ekonomikoaren Memoria
 - Babestu nahi diren elementu eta ondareen Katalogoa
 - Urbanizazio, eraikin, eraikuntza eta ingurumen Ordenantzak.
 - Genero ikuspegia.
 - Euskaran eragina.
 - Zeharkako gaiak
- 5) Hasierako onarpena, erakusketa publikoa, arrazoi bidez erantzutea hasierako onarpenari eta ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenari jarritako alegazioei, eta parte-hartze prozesua aztertzea.
- 6) Behin-behineko onarpena.
- 7) Behin betiko onarpenaren Testu Bateratua.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAA46MJP.RSV0>



- Udalera gerturaten den herritarrari erantzun funtzioekin zerikusia duten gaietan.
- Parte-hartze prozesuan interesdunek egindako erreklamazio eta eskaeren erantzunak prestatu.
- Interesdunek prozesuan jarritako errekurso administratiboen erantzunak prestatu.
- Dokumentu guztiak PDF formatuan eta formatu editagarrian (.dwg / .doc / ...) aurkeztu beharko dira.
- Bere nagusi hierarkikoei agindutako antzeko zeregin guztiak eta osagarriak, lanpostuaren zereginekin zerikusia dutenak egingo ditu.

Hirugarrena.- Izangaien Betebeharrak.

a) Europar Batasuneko estaturen bateko naziotasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko Itunen aplikazioaren indarrez, langileen zirkulazio askea aplikagarri zaiona.

Halaber, parte har dezakete Europar Batasuneko kide diren estatuetak naziotasuna duten ezkontideek, betiere ez badaude auzi-bidez bereizita edo banatuta ez badaude; hala nola bere eta ezkontidearenak ondorengoak ere, beti ere, auzi-bidez banatuta ez badaude, 21 urtez beherakoak izan zein adin horretatik gorakoak izan edo gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei urte (16) urte beteta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen eta derrigorreko erretiroa hartzeko adinera iritsi gabea izatea.

c) Edukitzea gaitasun funtzionala lanpostuko lan eta zeregin propioak egiteko, eta zentzu honetan, ez izatea akats fisiko edo gaixotasunik eragotziko diona lanpostuko funtzio eta betebeharrak propioak gauzatzeko, bazterketarik ezarri gabe muga fisiko edo psikikoengatik, zereginak eta funtzioak betetzearekin bateraezina diren kasuetan izan ezik.

d) Baztertua ez izana diziplina-espeditate bidez inolako administrazio publiko eta Autonomia Erkidegoetako estatutu-edota konstituzio-organoen zerbitzuetatik, ezta auzitegi ebazpen edo epai bidez erabateko edo berariazko gaitasun gabetuta egotea ere kargu publiko edo enpleguetarako, funtzionarioen kidego edo eskalatan sartzeko edota lan legeko langileen kasuan egikaritzen eta gauzatzen dituzten antzerako funtzio publikoak betetzeko. Beste Estatu batekoa izanez gero, ez izatea diziplina zehapenen menpeko edo, berari dagokion Estatuan, enplegu publikorako sarbidea ukatzen dion zigor kondenarik ez izatea.

e) Legezko ezgauza edo batera ezintasun kasuan sartuta ez egotea.

f) Titulazio akademiko honen jabe izatea.
Titulazioa: Arkitektura gradua edo lizentziatura.

g) Euskararen ezagutza: Europako Erreferentzia Markoaren C2 gaitasun maila (4. Hizkuntza eskakizunaren parekoa) egiaztatzen duen euskara-titulazioaren jabe izatea. Hautagaiaren artean C2 maila egiaztatzen duen inor ez badago, C1 maila (3. Hizkuntza Eskakizunaren parekoa) onartuko da, salbuespenez.

h) B Motako gida-baimenaren jabe izatea..

Oinarri honetan zerrendatutako betebeharrak eta eskakizun guztien jabe izan beharko da eskaerako aurkezteko epea amaitzen den egunean eta horiek zaindu eta mantendu hautaketa prozeduran zehar.

Laugarrena.- Eskaerak aurkeztea.

4.1.-Lan Poltsan parte hartu nahi duten hautagai edo izangaiak eskabidean horrela adierazi behar dute.

4.2.- Eskaerak aurkezteko epea urriaren 14tik urriaren 31aren arratsaldeko 15:00ak arte zabalik egongo da eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu eta entregatu egin behar dira.

Eskabideak entrega daitezke ere urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan

Posta bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak, ziurtatu aurretik, irekita eman behar zaizkio postako funtzionarioari, hark eguna jarri eta zigor bota diezaien.

4.3- Betebeharrak eta gaitasun guztiak egokituko zaizkio zorrozki eta soilik izangaiak edo hautagaiak dituenak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte; horiek egiaztatu beharko dira eskaerari erantsitako dokumentazio bidez. Jasota utzi behar dira balioztatu behar diren merezimenduak eta horiek egiaztatze dokumentuak erantsi beharko dira.

Betebeharrak egiaztatzea, Dokumentazioa

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAA46MJP.RSV0>



(A eta B) Nazionalitatea eta adina: NAN, pasaportearen edo lan baimena.

C) Gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea: Sinatutako zinpeko aitortpena (eskaera barruan sartuta.)

D) Diziplinazko espediente bitartez berezia ez izatea zinpeko aitortpena (eskaera barruan sartuta).

E) Ez egotea legezko kausan sartuta. Sinatutako zinpeko aitortpena (eskaera barruan sartuta).

F) Titulazio akademikoa Titulazio akademiko ziurtagiria.

G) Euskara mailaren Ziurtagiriak: HABE, HAEE, Hizkuntza Eskola, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuko salbuespen Ziurtagiria, titulazio homologatua.

H) B motako gida-baimena: B Motako gida-baimena.

4.5.- Deialdian eskatutako betebeharrak guztiak eta banan bana betetzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira kanporatuta.

4.6.- Eskerak aurkezteko epea amaituta, behin behineko onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda onartuko da, adierazita, azken kasu horretan, baztertzearren arrazoiak. Erabaki hori jende aurrean publikoan egingo da 3 baliodun eguneko epean zehar, Aretxabaleta Udalaren iragarkien taulan eta Web orrian ipinita www.aretxabaleta.eus. Izangaiek erreklamazioak formulatu ahal izango dituzte eta, hala bada kasua, egindako hutsa edo akatsa zuzendu ere, behin behineko zerrenda jendaurrean argitaratuta egoteko dagoen 3 lan eguneko epean zehar.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta behin horiek ebatzita, onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrenda onartuko da eta bere argitalpena aginduko da edota behin behineko zerrendarekiko egindako aldaketena, udaleko iragarki oholean eta udalaren web orrian. Ez bada aurkezten erreklamaziorik, behin behineko zerrenda, berez behin betikoa bihurtu dela ulertuko da.

Bosgarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.

Epaimahaia hauek osatuko dute: presidente bat, idazkari bat eta hiru (3) batzordekide; Bere eraketan doituko da urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-dekretuko 60. Artikuluan xedatutakora.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak ekarri ahal izango ditu, hautaketa prozesuko ariketei dagozkien proba batzuetarako edo guztietarako, euren aholkularitza eta lankidetzak teknikoak prestatuta beraien espezialitateetan. Jardungo dute ahotsaz, baina boto eskubide barik.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ez dute parte hartu behar, korporazioko lehendakariari jakinaraziz, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat betetzen denean; aldi berean, izangaiek errefusa ditzakete aipatu den lege horretarako 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiaren arteko bat batera suertatzen denean.

Epai-mahaikide guztiak dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, Idazkariak izan ezik. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen arteko bozka gehiengoz hartuko dira. Berdinketa kasuan Lehendakari arituko denak ebatziko du bere botoaz.

Epaimahaiak aurkeztuko zaizkion zalantzak erabakitzeko eta oinarri hauetan zehaztuta ez dauden kasuetan hautaketa prozesuaren ordena eta garapen egokirako behar diren erabakiak hartzeko ahalmena du.

Epaimahaia osatzen duten pertsonen izendun zerrenda argitaratuko da hautatze prozesura onartutako eta baztertutakoaren zerrendarekin batera.

Seigarrena.- Sailkapenak eta argitara ematea

6.1.- Prozesuko sailkapenaren hurrenkera zehaztuko da merezimenduen balorazioan lortutako puntuazioaren bitartez.

6.2.- Hautaketa prozedura amaitu ondoren eta izan litezkeen balizko erreklamazioei erantzuteko, lan poltsen sailkapenen behin behineko zerrenda Udaltxeko iragarkien taulan eta Web orrian argitaratuko da 3 lan eguneko epean zehar. Erreklamazioak aurkeztu ahal izateko 3 lan eguneko epea izango da, behin behineko zerrenda erakusteko epea amaitu zenetik hasita.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAA46MJP.RSV0>



6.3.- Izan diren erreklamazioak Epaimahaiak ebatzi ondoren, lan poltsako sailkapenen behin betiko zerrenda Udaletxeko iragarkien taulan eta Web orrian erakutsiko da.

Zazpigarrena.- Hautatzeko prozesua.

Izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak, onartutako behin betiko zerrendan agertuko direnak, balioztatuko dira baremo honen arabera:

1.- Esperientzia: (Gehienez 55 puntu)

- Arkitekto bezala Administrazio publikoari emandako zerbitzuak edo sektore pribatuan arkitekto lanetan eta ezinbestean bete beharreko funtzioekin zerikusia duten zereginak:

HAPOak egiten enpresa edota administrazio bakoitzeko:

6 hilabete arte (< 6 hilabete): 1 puntu

6 hilabete eta urtebete bitartean (6 hilabete \leq x < 1 urte): 3 puntu

Urtebete eta bi urte bitartean (1 urte \leq x < 2 urte): 8 puntu

2 urte eta 4 urte bitartean (2 urte \leq x < 4 urte): : 18 puntu

4 urtetik gora (4 urte \leq x): 40 puntu

Plan Partzialak eta Plan Bereziak egitea, beraien aldaketa, HAPOaren edo Arau Subsidiarioen aldaketa puntualak egitea, eta baita Lurralde Antolamenduko Plan edo Gidalerroak idaztea ere, enpresa edota administrazio bakoitzeko:

6 hilabete arte (< 6 hilabete):: 0,5 puntu

6 hilabete eta urtebete bitartean (6 hilabete \leq x < 1 urte):: 1,5 puntu

Urtebete eta bi urte bitartean (1 urte \leq x < 2 urte):: 4 puntu

2 urtetik gora (2 urte \leq x) : 10 puntu

Ez da zenbatuko denbora aldi berberari buruzko aldi bereko eskarmentu edo esperientziarik. Esperientziaren puntuazio minimoa 25 puntukoa izango da eta

Administrazioko lan eskarmentuari buruzko merezimenduak zuzitza eta justifikatza egingo da zerbitzuen ziurtagirien bitartez, espezifikatuta kontratuaren iraupena edo izendapenarena eta gauzatutako funtzioak zehatz mehatz zerrendatuko ditu.

Enpresa pribatuan izaniko lan eskarmenturako ezinbestekoa izango da lan-kontratua eta Gizarte Segurantzako lan-bizitzaren ziurtagiria eta enpresako arduradunaren edo ordezkariaren ziurtagiria non enpresan bertan pertsona horrek egindako zereginak zehatz-mehatz zerrendatzen dituen.

Epaimahaiak, bi kasuetan, argi ikusten ez badu, baztertzeko erabakia hartu dezake edota informazio gehiago eskatu.

2.- Formazioa, prestakuntza: (Gehienez 25 puntu)

Ondorengo formakuntza saioak baloratu ahalko dira, betiere epaimahaiak lanaren funtzioekin erabateko lotura duela erabakitzen badu:

- Hirigintza eta Lurralde Antolamenduari lotutakoak.
- Ingurumenarekin lotutakoak.
- Hirigintza jasangarriarekin lotutakoak.
- Parte-hartze prozesuekin lotutakoak.
- Genero ikuspegiarekin lotutakoak.
- Informatika programak: GIS, BIM.

\geq 600 ordu : 6 puntu

\geq 200 ordu : 4 puntu

\geq 100 ordu : 2 puntu

\geq 50 ordu : 1 puntu

\geq 20 ordu : 0,5 puntu

Balioztatu ahal izateko eginiko ikastaroen dokumentu egiaztatzaileak, IVAPek edo zentro ofizial aitortuak emanikoak izan behar dira eta jasoarazi beharko dute ikastaro horren ordu zenbatekoa.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAA46MJP.RSV0>

Arratabe jauregia | Otalora kalea 1 | 20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 71 18 62 | Faxe: 943 71 18 64

udala@aretxabaleta.eus | www.aretxabaleta.eus



3. Euskara: Ez da euskara frogarik egingo. Eskatzaile, hautagai edo izangai bakoitzaren ardura eta erantzukizuna da lortuta daukan euskara maila egiaztatzea (IVAP-HAEE, Hizkuntza Eskola, HABEren ziurtagiria edo beste titulazio homologaturen baten bitartez ala apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuko salbuespen ziurtagiria).

Gutxienez esperientzia eta formazioko puntuaketa 40 puntukoa izan beharko da Elkarrizketa fasera pasatzeko.

4.- Elkarrizketa pertsonala (Gehienez 20 puntu)

Ariketa nahitaezkoa eta ez baztertzaileria izango da, eta curriculum-elkarrizketa bat egingo da, non, besteak beste, ezaugarri pertsonalak eta trebetasun sozialak, egoerak bideratzeko modua, arrazoitzeko gaitasuna ebaluatutako baitira eta argudiatutako merituak benetan dituela egiaztatuko baitira.

Proba hau gehienez ere 20 punturekin balioetsiko da, eta izangaia lanpostuaren profilari oro har nola egokitzen den balioetsiko da; ondo egokitzen bada, 20 puntu emango zaizkio, erdipurdi egokitzen bada, 10 puntu eta gaizki egokitzen bada 5 puntu eta batere egokitzen ez bada 0 puntu.

Zortzigarrena.- Zerrenden funtzionamendua.

8.1.- Errekeritutako zerbitzuen prestazioa egingo da behin betiko sailkapen-zerrendan ateratako sailkapen hurrenkera zorrotza gordeta. Lanerako deiak beti hasiko dira egiten ari den kontratazioaren puntuazio altueneko xede den lan postuaren zereginak gauzatzeko ezinbesteko betebeharrak eta baldintzak betetzen dituen pertsonagandik.

Kontratua amaitu ostean, hautatuta egon den pertsonaren izena bueltatuko da irten den lan postuarentzat zerrendara, zeukan hurrenkera posizio berberari eutsiz.

8.2.- Aukeratutako hautagai izangaiak dagozkion mediku errekonozimenduak egin beharko ditu, lana era normalean gauzatzeko "gaitasuna" zehazte aldera.

8.3.- Prestazioaren iraupena prestazioa sorrarazi duen kausak eta arrazoiak mantentzen diren bitartean beharrezkoa den denboran zeharrezkoa izango da; baina, arrazoiak desagertuz gero efekturik gabe, amaituta, geratuko da berez eta automatikoki."

8.4.- Kontratazio bakoitzean izangaiak 180 lan eguneko frogara izango du; frogara aldi horretan hartu duen kargutik ken daiteke, aurretiko arloko buru edo arduradunaren txostenaz eta interesatuari entzunaldia eskainita.

8.5.- Ez bada onartu egin zaion lan eskaintza justifikatu gabeko arrazoi bategatik, horrek erakarriko du lan postuarekin behin betiko baja ematea, eta hori jakinarazi egingo zaio idatziz interesdunari.

Bederatzigarrena.- Azken araua.

Deialdiko oinarri hauek, arautzen duten deialdia eta bertatik eta Epaimahaia Kalifikatzailearen egintzetatik ondorioztatutako diren egintza administratibo guztiak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidegoko 39/2015 urriaren 1eko Legean ezarritako kasuetan eta formaz aurkaratu ahal izango dira.

Erabaki honekin Administrazio bidea amaitu da. Erabakia aldekoa izan ala ez, aurkaratu nahi izanez gero, Administrazioarekiko Auzitara jo aurretik berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke jakinarazpena jaso denetik hasita hilabete bateko epearen barruan. Hala ere, zuzenean jar daiteke Administrazioarekiko auzia aurkarapen egilearen aukeraren arabera Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, erabakia argitaratu eta bi hilabeteko epearen barruan.

Guzti hori, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidegoko 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 114 c) 123, 124 eta batera datozen artikuluetan xedatutakoaren arabera, hala nola uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioaren 29/1998 Legeko 8, 14, 25, 46, eta batera datozen artikuluetan.

Eta hori, egikaritzea egoki irizten den beste edozein egintza edo errekursoren kalterik gabe.

Aretxabaleta, 2019ko urriaren 7a. Alkateak